



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARTE  
EDERREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE BELLAS  
ARTES

# ARTE GARAIKIDE TEKNOLOGIKO ETA PERFORMATIBOA MASTERRA

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

"Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa" Unibertsitate Masterrak goi mailako prestakuntza eskaera bati erantzuten dio, prestakuntza espezializatua eta diziplina anitzekoa, teknologia berriak erabiltzen dituzten arteetan, hainbat eremutan: irudiaren argazki erregistroa, interaktibitatea, soinu artea, irudia mugimenduan, animazioa eta performancea.

Programaren helburu nagusia da ikasleei tresna kontzeptualak eskaintzea, berrikuntza eta sormena txertatzen diren gizarte, kultura eta ekonomia alderdiak arakatzeko, eta gaitasun teknikoak ematea, aipatutako eremuetako jardueretan aritzeko.

Masterreko irakasleak UPV/EHUko eta beste unibertsitate batzuetako irakasle-ikertzaileak dira, eta sektoreko profesionalak eta artistak.

---

## SARBIDEA

---

Artearen eta diseinuaren alorreko ikasle egresatuek izango dute lehentasuna, eta masterra egiteko aukera izango dute ere ikasketa hauek egiteko interesa eta

gaitasuna erakusten dituzten pertsona tituludunek. Aurkeztutako dosierra elementu erabakitzailea izango da hautaketan.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Bideojokoak: interfaceak garatzea eta animazio grafikoaren estetika digitala. Kultura kudeaketa: kultura ekitaldi eta ekipamendu garaikideak kudeatzea, espezializazioa arteari eta teknologiari lotutako proiektuetan. Komisariotza artistikoa: espezializazioa praktika artistiko garaikideetan, beste ezagutza arlo batzuetako profesional eta ikertzaileentzat.

Ikus-entzunezko enpresak: hedabideetan, ikus-entzunezko ekoizpen etxeetan eta irudi grafiko eta interaktiboko enpresetan lan egiten duten sortzaileen taldeak. Eremu artistikoa: era autonomoan lan egitea irudi digitalarekin eta oro har arte garaikidearekin zerikusia duten proiektuetan.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

**Eskolak emateko lekua:**

Arte Ederren Fakultatea (Leioa).

**Irakaskuntza mota:**

Eskolan bertakoa.

**Hizkuntza:**

Gaztelania. Master Amaierako Lana euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da.

**Gutxi gorabeherako prezioa:** 1.750-1.950 euro.

**Egutegia:**

Irailetik ekainera, arratsaldez.

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak	Hautazko Gaiak	Proiektuak / Ikerketa-lanak	Practicum	Guztira
18 ECTS kreditu	24 ECTS kreditu	12 ECTS kreditu	6 ECTS kreditu	60 ECTS kreditu

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

- Artea eta Testuingurua Arte Teknologikoan (4 ECTS).
- Erregistroa eta Performatibitatea: Denbora Erregistratua eta Denbora Errealia (5 ECTS).
- Espazio Teknologikoa Espazio Publiko Berri Gisa (3 ECTS).
- Taldeko Praktika Artistikoak eta Egiletza eta Haren Eskubideekiko Harreman Berriak (3 ECTS).
- Praktika Artistikoak, Diskurtso Teorikoak eta Komisarioen Antolaketa Arte Garaikidean (3 ECTS).
- Ereduak eta Dinamikak Argazkilaritzako Ikerketetan (4 ECTS).
- Soinu Artea eta Interfazeak (4 ECTS).
- Ikus-entzunezko Zuzendaritza. Zuzendaritza Narratiboa (4 ECTS).
- Gailu Elektromekanikoak (4 ECTS).
- Argazkiak Egiteko eta Erregistratzeko Estrategiak Praktika Artistiko Garaikideetan (4 ECTS).
- Argazkilaritza eta Gaur Egungo Praktika Artistikoak (4 ECTS).
- Motion Graphics (4 ECTS).
- Argazkilaritzako Esperimentazio Prozesuak (4 ECTS).
- Mugimendua Berreraikitze Prozesuak Irudi Finkoan eta Mugikorrean (4 ECTS).
- Esperimentazio Proiektuak: Produkzioa eta Garapena (4 ECTS).
- Kudeaketa Softwarea eta Espazioen Aktibazioa (4 ECTS).
- Master-amaierako proiektua (12 ECTS)
- Practicum (6 ECTS).

---

## HARREMANETARAKO

---

**Arduraduna:**

Josu Rekalde Izagirre

Tel: 946014522

**Posta elektronikoa:**

josu.rekalde@ehu.eus

